

ARTROSI ETA SINDROME FAZETARIOA

ZER DA?

Artrosi fazetarioa, izenak dioen bezala, artikulazio fazetarioa banatzen duen erdiko kartilagoaren endekapena da.

Síndrome fazetarioa, artikulazio fazetarioaren gainkarga edo hanturak sortutako zeinu eta sintomen multzoa da. Síndrome fazetarioa izateko, ez da artrosi fazetarioa izan behar. Artikulazioaren atzeko aldeak gainkarga handia jasateak, endekapen prozesua azkartzea eragin dezake.

Erradiografia irudien bidez diagnostikatzen da.

SINTOMAK

Artrosiaren kokapen mailaren arabera sintomatologia ezberdina eragin dezake. Geroz eta gorago, mina zerbikal aldean igarriko du. Geroz eta beherago berriz, beheko adarrean. Oinez ibiltzean azkar areagotzen den mina eragiten du eta esertzean min sentazioa hobetu egiten da. Batzuetan, min erreferitua eragin dezake hankan.

TRATAMENDUA

Tratamendua berdina da bi kasuetan, artrosi fazetarioa izan edo ez izan.

Tratamendu mediku ohikoena rizolisia den arren (artikulazio fazetarioaren sensibilitatea jasotzen duten nerbio adarren suntsiketa substantzia kimiko edo erradiofrekuentzia erabiliz) ez du ebidentzia zientifiko handirik.

Ebidentziak dio, ariketa terapeutiko pertsonalizatuak, fisioterapiarekin batera eragina duela sintomatologia arintzerako orduan, estabilitatea eta funtzionaltasuna lortzen laguntzen dutelako.

ARTROSI FAZETARIOA

FAZETA ARTIKULARRA

